

8/2016 UDALEKO OSOKO BILKURA

2016KO AZAROAREN 2AN IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)
Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)
Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2016ko azaroaren 2an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ez Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Bakarne Olano Manzano, Kepa De la Iglesia Sánchez, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.-ORDENANTZA FISKALAK

Lehena.- 2017 urterako, Anoetako Udal Ordenantza Fiskaletan, behin behineko izaeraz, ondorengo aldaketak onestea proposatzen da:

ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA

Ondorengo atala aldatzea:

ERANSKINA

- 1 Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa honako da:
 - a) Industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasun hiritarrentzat: %0,5544

b) gainerako ondasun hiritarrentzat: %0,17988

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA
EZARTZEKO FUNTSEZKOAK DIREN ELEMENTUAK ARAUTZEKO
ORDENANTZA FISKALA**

Ondorengo atala eranstea:

VI. HOBARIAK

6. Artikulua.

4. 100eko 90erainoko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera».

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK
BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA
ARAUTZAILEA.**

ERANSKINA

TARIFAK

K. KULTUR ETA GIZARTE MAILAKO JARDUERAK

3. UDALEKU IREKIAK UZTAILEAN

- 2 aste..... 60,00 Euro

Ondorengo atala eranstea:

- Hilabete osoa.....100,00 Euro

Ondorengo atala ezabatzea:

4. IKASTAROAK.

XAKE IKASTAROA ETA LIGA (Hiruhilabetea)..... 20,00 Euro

Ondorengo atala eranstea:

TARIFA HAU APLIKATZEKO ARAUAK:

4.- MURRIZKETAK jarduera guztietan eta Anoetan erroldaturik daudenei soilik aplikatuko zaie. Murrizpenak hauek dira:

4.2 18 urtetik gorako partaideentzako:

c)Ikaslek, jubilatu, langabetuek, 60 urtetik gorakoek eta pentsionistek %25eko murrizketa izango dute.

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIA-GATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

Ondorengo atala aldatzea:

ERANSKINA

TARIFAK

B. ESPALOIEN GAINETIK ETXALDETARA IRISTEKO IBILGAILUEN SARRERA ETA BERAUEN APARKAMENDU ERRESERBA.

d) Garaje kolektiboetan 5 auto baino gehiago sartzen direnean:

1* Auto bakoitzeko eta urteko..... 4,48
Euro

e) Garaje indibidualetan 5 auto baino gutxiago sartzen direnean:

2* Auto bakoitzeko eta urteko..... 21,02
Euro

TARIFAK EZARTZEKO ARAUAK

Ondorengo atala aldatzea:

C. FERI ETA HERRI FESTETAKO POSTUAK

a) Txoznak..... 39,00 Euro

b) Txurreriak, metro linealeko edo honen zatiko eta egonaldia:.....8,00 Euro

c) Pastel, karamelu, gozoki, fruitu lehor, patata frijitu bitxikeri, jostailu, liburu etabar saltzeko txabolak

1* metro linealeko edo honen zatiko eta egonaldia.....8,00 Euro

d) Tiro, anila eta bestelako jokuetako txabolak.

2* metro linealeko edo honen zatiko eta egonaldia.....16,00 Euro

e) Tonbola, errifa, salmenta azkarra eta antzekoak

- 3* metro linealeko edo honen zatiko eta egonaldia.....16,00 Euro
- f) Kulupio, egan egiten duten gailuak, kalesitak, zalditxo jokoak, bunpersak eta, orohar higitzen den ezein gailu mota
- metro linealeko edo honen zatiko eta egonaldia8,00 Euro
- g) Talka-autoen pistak.
- metro linealeko edo honen zatiko eta egonaldia6,00 Euro
- h) Jaietako edonolako artikuluak saltzeko saltokiak
- metro linealeko edo honen zatiko eta egonaldia 8,00 Euro

Ondorengo atala ezabatzea:

TARIFAK EZARTZEKO ARAUAK

4.- *Txosnei 150,25 €tako fidantza jartzea eskatuko zaie. Fidantza hau bueltatuko zaie festak amaitu ondoren dena txukun uzten baldin badute.*

Ondorengo atala aldatzea:

E. ASTEROKO MERKATUA:

Segidan zerrendatzen diren postu hauen instalazioa, eguneko, ondorengo ordainketak medio:

- a) Baserriko barazkiak:
- 4* Metro lineal bakoitza.....1,00 Euro
- a) Loreak, haziak, eta eratorriak
- 5* Metro lineal bakoitza.....4,00 Euro
- b) Urdaiazpiko, txerrikia orohar, gazta eta gurinak:
- 6* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....9,00 Euro
- c) Oliba, pepintxo eta antzeakoak:
- 7* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....5,00 Euro
- d) Baserrikoak ez diren barazkiak, hala nola, baratxuri, patatak, fruta ezberdinak, meloiak eta antzeakoak:
- 8* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....7,00 Euro
- e) Fruitu lehorrak, pasak, pikuak, urrak, almendrak eta antzeakoak, arraultza salmenta ere:
- 9* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....4,00 Euro
- f) Pastak, gailetak, gozotegia orohar:
- 10* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....7,00 Euro

- g) Txoriak, arrainak, hesibarruko animala txikiak, kaiolak, arrainontziak eta aipatu animalientzako janariak:
 11* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....5,00 Euro
- h) Liburu, aldizkari, egunkari eta antzekoen salmenta:
 12* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....3,00 Euro
- i) Kasetak, diskak eta antzekoen salmenta:
 13* - 2,9m x 2m.ko lurzatia.....5,00 Euro
- j) Larrukiak, bitxikeria, kuadroak, jostailuak eta oparitutako gaiak:
 14* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....5,00 Euro
- k) Nekazal lanabesak eta makinaria:
 15* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....3,00 Euro
- l) Alfonbrak, tapizak, koltxoak, ohialak, jantziak orohar:
 16* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....9,00 Euro
- m) Oinetakoak:
 17* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....5,00 Euro
- b) Sukalde tresneria, burdindegia, beireria, margoturiko paperak, euritakoak eta antzekoak:
 18* 2,9m x 2m. ko lurzatia.....5,00 Euro
- n) Enboteilaturiko edariak eta likorrak:
 19* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....9,00 Euro
- o) Sagardoak eta txakolina:
 20* 2,9m x 2m.ko lurzatia.....5,00 Euro

Bigarrena.- Aurreko atalean adierazitako akordioa 30 laneguneko epez jendaurrean jartzea, berarekiko aurkez daitezkeen erreklamazio edo oharpenetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez bada, onartutako erabakiek behin betiko izaera hartuko dute, onspen berri baten beharrik izan gabe.

Laugarrena.- Aurreko atalean adierazten den behin betiko akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko abenduaren 31a baino lehen argitaratzea.

Aipatu proposamena bozketara eramaten da ondorengo emaitza lortuz:

*ALDEKO BOTUAK: LAU (EH Bildu talde politikoa)

* AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**

* ABSTENTZIOAK: **BAT** (EAJ talde politikoa)

Bozketaren emaitza ikusirik onartuta gelditzen da proposamena.

2.- 2015EKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA-

Udalbatzak jakintzat eman du 2016ko urriaren 11ko dekretua, zeinaren bidez 2015 Ekitaldiko Aurrekontu Propioaren Likidazioa onartzen den, eta honela dioena:

“DEKRETUA

Anoetan, 2016ko urriaren 11n

Udal honen 2015eko aurrekontuaren likidazioari buruz Idazkari-kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2015eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZAKO GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, -12-31n:		915.208,44
2.- Kobratu gabeko saldoak, -12-31n:		278.149,69
Aurrekontuko zordunak :	279.794,18	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.496,14	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	-3.140,63	
3.- Ordaindu gabeko		254.784,20

saldoak, -12-31n:		
Gastuen	204.114,44	
aurrekontuko hartzekodunak:		
Sarreren	0,00	
aurrekontuko hartzekodunak:		
Aurrekontuz	52.290,43	
kanpoko hartzekodunak:		
- Aplikatu	-1.620,67	
gabeko ordainketak:		
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		938.573,93
5.- Saldo kobragaitzak:		85.022,27
6.- Diruzaintzako gerakin likidua (4-5):		853.551,66
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		853.551,66

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	313.524,58
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-416,51
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	109.695,62
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	422.803,69

KREDITU GERAKINAK

14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
---	------

15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	00,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	0,00

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Eta beste aztergairik ezean, Alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean; guzti honetaz, nik bitarteko idazkariak, fede ematen dudalarik.